

# FAMILIA GIROAN



**VITORIA  
GASTEIZ**   
turismo  
& convention bureau



*Gasteiz,  
goza ezazu familia giroan*

**KONTRASTEZ BETETAKO INGURUNE**

berezi batean historia deskubritzeko  
eta natura bizitzeko helmuga jasangarria

## ERDI AROKO HIRIGUNEA, PASEOA HISTORIAN ZEHAR



Gasteiz, Euskal Herriko hiriburua, hiri berdea, jasangarria eta bizi-kalitate handikoa da. Gainera, Erdi Aroko kutsua duen hiria da, familia giroan gozatzeko plan ugari eskaintzen dizkiguna.

la mile urteko historiarekin, Gasteizek ia osorik mantendu du **Erdi Aroko hirigunea**, 1997an Monumentu Multzo izendatutakoa. Hiriaren erdi-erdian dago, muino baten tontorrean, eta "kantoi" izeneko kale aldapsuen bidez hel daiteke, baina baita arrapala mekaniko edo igogailu bidez ere. Hango kale estuek bertan lan egiten zuten gremioen izenak gorde dituzte: Errementari, Zapatar, Aiztogile. Haren ibilbideari jarraituz, Erdi Aroko plazak aurkituko ditugu, hala nola **Buruileria** edo **Aihotz plazak**, Erdi Aroko harresia, dorretxeak, **El Portalon** (XV. mendea) izeneko postetxe zaharra, jauregi errenazentistak (**Montehermoso** eta **Villa Suso**), eliza gotikoak eta **Santa Maria katedrala** (XII. mendea). Tenplua zaharberritzeko lanek, hiriaren historiaren sekretu ugari argitu dituzte. Ezagutu nahi al dituzue? Bisita gidatuaren zatirik handiena irisgarria da eta zimenduetatik dorreraino joateko aukera ematen digu. Dorrean, hiriko panoramikarik onena izango dugu. Informazioa eta erreserbak: [www.catedralvitoria.es](http://www.catedralvitoria.es)

Horma-irudi ederrez margotutako fatxadak ere aurkituko dituzu, eta museo bereziak, hala nola, **karten Fournier Museo**, herrialde eta garai guztietako karta-bilduma handia duena, eta xarma handiko saltokiak eta adin guztietarako eskaintza gastronomiko handia: pintxoak eta errezeta tradizionalak osatutako menuak, hanburgesak, ogitartekoak eta pizzak ahaztu gabe. Turismo Bulegoak haurrentzako bisita gidatuak antolatzen ditu Erdi Aroko hirigunean. [v-g.us/haurrentzakobisita](http://v-g.us/haurrentzakobisita)



Erdi Aroko hirigunetik ateratzeko **Arkupeetatik** igaro gaitzake. Olaguibel arkitekto gasteiztarrak muinoaren desnibela gainditzeko eta Erdi Aroko hiria alderdi neoklasikoarekin lotzeko asmatutako eraikin neoklasikoak dira. **Espainia plaza** eta **Andre Maria Zuriaren plaza** dira hiriko gune nagusiak, bai eta urtean zehar egiten diren jai- eta kultura-jarduerenak ere.

Erdiguneko oinezkoentzako kaleak terrazaz betetzen dira, familia giroan mokadutxoren bat egiteko. **Dato** eta **San Prudentzio kaleak** eta **Foru plaza** leku enblematikoak dira, merkataritza-jarduera handikoa. Eta nork egingo lioke muzin gozoki bati? Gasteizko gozotegiekin ondo merezitako ospea dute. Probatu bertako espezialitateak: trufak eta bonboiak, pastelxoak, turriak eta gozokiak. Hatzak miazkatuko dituzue. [v-g.us/gozogintza](http://v-g.us/gozogintza)

## FLORIDA PARKEA ETA SENDA IBILBIDEA

## ERAZTUN BERDEA, OINEZ EDO BIZIKLETAZ



Europako Hiriburua Berde (2012) eta Munduko Hiri Berde (2019) izendatu zuten eta 2016tik Helmuga Turistikoa jasangarria da, biztanleko berdegune gehien dituen probintziako hiriburua baita, 150 espezieetako 130.000 zuhaitz baino gehiagorekin. Baina hiriaren harrotasuna hura inguratzen duen **Eraztun Berdea** da, parkez osatutako 33 kilometroko gerrikoa, aisialdirako eta ingurumenaren gozamenarako berreskuratutako baso, ibaiertz, hezegune eta muinoekin.

Turismo Bulegoan eskura duzu oinez edo bizikletaz egiteko hiru ibilbide dituen mapa: **Armentia Basoa**, **Olarizu** eta hiruretan ezagunena den **Salburuoko Hezegunea**. Han dago **Ataria**, hainbat jarduera antolatzen dituen **Naturaren Interpretazio Zentroa**. [v-g.us/atariaeu](http://v-g.us/atariaeu)

Salburuan uretako hegaztiak ikusteko behatokiak daude eta orein talde batera hurbil zaitzake galtzako arriskuan dagoen bisoi europarra bizi den ingurune batean. Natura gustatzen bazaizue, kontsultatu [v-g.us/turismoa](http://v-g.us/turismoa) web-orriko 'Natura' menua.

## KIROLERAKO ETA KULTURARAKO LURRALDE BAT



Izan ere, hiri honetan, erraza da kirola bizitzea. 150 km bizikleta-errei daude eta auzo guztietako kirol ekipamenduak, Gizarte Etxeak, hiriaren beste ezaugarri bat dira. Igerileku estaliak, rokodromoak, padel pistak, patinajeko belodromoak eta abar dituzte. Gehienetan bazkide ez direnei ere sartzan uzten zaie sarrera bat ordainduta.

Udan, ederki pasa daiteke **Gamarrako** aire zabaleko igerilekuan. Beste aukera bat BAKH-eko **izotz-pista** handian patinak janztea da. Oso hurbil dago Atariatik eta **Buesa Arenatik**, hau da, Baskonia saskibaloitza talde handiaren tenplutik.

Hiritik kanpo, Arabako lurraldeak ingurune natural pribilegiatua eskaintzen ditu. Kilometro gutxira eta bizikleta-bide baten bidez lotuta, **Zadorrako urtegiek** uretako kirolak egiteko aukera ematen dute, hala nola bela eta piraguismoa egiteko. **Garaio** eta **Landa Garaio** eta Landa parkeek bainurako prestatutako **barnealdeko hondartzak** dituzte. Horieta hiru bandera urdina dute.

Sai arreen kolonia handienetako bat duen **Valderejok** eta **Gorbeia** eta **Aizkorri-Aratz** parke naturalek aukera ematen dute mendi-ibilaldiak egiteko, zaldiz ibiltzeko, eskalatzeko eta mendi, baso eta ur-jauzien ingurune naturala ezagutzeko, esaterako, **Gujuli** eta **Nerbioi** (penintsulako altuena) **ur-jauziak**. Ikusgarriak, zalantzarik gabe!



Nahitaez egin beharreko beste bisita bat **Florida parkea** da, 1820ko lorategi erromantikoa, bere ibai muino eta bidezidorrekin baso bat birsortzen duena, ehunka urteko zuhaitz-espezie exotikoen adarren azpian. Musika-kioskoan kontzertuak egiten dira eta, Gabonetan, Belen Monumentalaren eszenatokia da parkea, tamaina errealeko irudiekin. Aldamenean, "Katedral Berriko" lorategietan, krokodilo eta errinozeronte bitxi samarren eskulturekin goza dezakegu. Ondo begiratu! Turismo Bulegoak parkea ezagutzeko bisita gidatuak eskaintzen ditu urteko hainbat unetan.

Floridatik abiatzen da **Senda Ibilbidea**, hainbat paseo biltzen dituena, banana erraldoien artean lehenik eta indiar gaztainoaren artean geroago. 3 kilometroko ibilbidea, XII. mendeko **Armentiako ermita erromanikoan** amaitzen dena. Ibilbidean hainbat jauregi ikus daitezke, esaterako, **Arte Ederren** eta **Armagintza museoen** egoitzak direnak, edo **Ajuria Enea**, Lehendakaria bizi den etxea. Mendizorrotzako pabiloitik igaroko zara, hau da, Deportivo Alavesen zelaitik.

Euskal kultura, gastronomia, artisautza eta tradizioak ezagutzeko, landa-ingurunea hurbiltzea eta gazta, sagardoa edo eztiak egiten den iparraldeko baserri tipikoak ezagutzeko eta **Arabako Errioxako** herri ederretan mahastiak eta ardoaren elaborazio-prozesua ikustea da onena. Herriko jai ugariak aukera ematen digute merkatuetan parte hartzeko, eta musikaz eta tradizioez gozatzeko.

Eta amaitzeko, berriz ere gure historia: zain ditugu **trikuharri prehistorikoak**, esaterako, **Sorginetxe** Agurainen edo **La Hechicera** Bilarren, Brontze Aroko **La Hoya aztarnategia** Guardian, eta beste hainbat gaztelu eta herri harresitu.

## ERREFERENTZIAK:

- **'Familia giroan' atala** [v-g.eus/familiagiroan](http://v-g.eus/familiagiroan) **Turismoko webgunean.**
- **Gasteizko bisita gidatuei buruzko webgunea:** [v-g.eus/bisitak](http://v-g.eus/bisitak)
- **Ibilbide Berdeen mapa, Eratzun Berdea:** [v-g.eus/rutasverdes](http://v-g.eus/rutasverdes)
- **Mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako bizikleta eta alternatiben alokairua:** [v-g.eus/alokatu](http://v-g.eus/alokatu)

Informazio guztia eguneratua hemen: [www.vitoria-gasteiz.org/turismoa](http://www.vitoria-gasteiz.org/turismoa)

## EZINBESTEKOAK

Bisita gidatuei eta beste jarduerak batzuei buruzko erreserbak eta informazioaz Turismo Bulegoa. +34 945 161 598 / 99



### GASTEIZ, TXIKIENTZAT

Ibilaldi entretenigarri eta didaktikoa familia giroan, Erdi Aroko hiriguneko txoko ederrenak ezagutzeko. Gainera, 'green' klabeiko ibilbidea da, gure ingurunea zaintzeko arrastoak eta proposamenak eskaintzen dituena. Informazioa eta erreserbak, hemen: [v-g.eus/haurrentzakobisita](http://v-g.eus/haurrentzakobisita)



### ITSASONTZI PIRATA LAKUAN

Imajinatu 33 metro luzeko itsasontzi bat jolasez betetako parke batean, etxeko txikienek primeran pasatzeko. Lakua auzoan dago. Zuzeneko konezioa tranbian (Ibaiondo-Lakuabizkarra geltokia). Haurrentzako beste jolas-gune batzuk: Vicente Goikoetxea Katedral Berriaren ondoan eta Santa Barbara Azoka plazaren ondoan. Zabalgana eta Salburua auzoetan ere badaude haurrentzako jolas-eremu handiak.



### HEGAZTI-BEHAKETA BIZIKLETAZ. IIBILBIDEA SALBURUAN BARRENA

Pedalkadaka egiten den ibilbidea, Europako Hiri-buru Berdeak eta Munduko Hiri Berdeak liluratuta utz zaitzan. Atariara bisitak bizikletaz: [v-g.eus/turismoa](http://v-g.eus/turismoa)



### SOBRÓN ETA OLAETAKO ABENTURA PARKEAK

**Sobrongo Abentura Zentroa** ingurune natural pribilegiatu batean dago eta familientzako jarduerak antolatzen ditu: tirolinak, kayak edo kanoa, paintball, eskalada, arku-tiroa, orientazioa eta mendi-ibilikiak. Sobronen dago.

[aventurasobron.com](http://aventurasobron.com)

**Hontza Extrem Abentura Zentroak** arku-tiroa eta zuhaitz gaineko abentura proposatzen ditu: zubi tibetarrak, sareko zuhiak, tirolinak, lianak, enbor kulunkariak eta zuhaitzetan eskalatzeko. Olaetan. [bit.ly/hontzaeu](http://bit.ly/hontzaeu)



### ZADORRAKO URTEGIAK

Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak eta uretako hegazti askoren babeslekua dira. Bertaraino joan eta haien bira egin daitezke bizikletaz, eta uda partean baita bertan bainatu ere. Garaio eta Landako hondartzek bandera urdina dute. [bit.ly/barnealdekhondartzak](http://bit.ly/barnealdekhondartzak)

# GASTEIZ

## Gozatu Green Hiriburuaz!



Andre Mari Zuriaren Plaza

**G**asteiz berez da harrigarria. Europan, berdeguneen azalera handienetakoa duen hiria da; bai pasieran ibiltzeko, korrika egiteko edo bizikletaz ibiltzeko, bai hegaztiak ikusteko, bai zaldiz ibiltzeko.

'European Green Capital 2012'

sariak, 2016tik Turismo Helmuga Jasangarria izateak eta 'Global Green City 2019' izendapenak, nazioarte mailan ingurumenarekin konpromiso handienetakoa duen hirietako bat dela baieztatzen dute. Zatoz Gasteiz ezagutzera!



Eraztun Berdea



Muralismoa

**Festak eta kultur-adierazpenak.** Goi-mailako proposamenak eskaintzen ditu ekitaldien egutegiak. Adibidez, Jazzaren Nazioarteko Jaialdia, Azkena Rock Festival, Magialdia, Kaldearte (arteak kalean), Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta FestVal-a (telebista) daude. Baita kirol-txapelketak ere; adibidez: Martin Fiz maratoia edo Gasteizko Ironmana. Eta, jakina, gure kulturaz gozatzeko uneak: herri-kirolak, folklorea, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak (Arabako zaindariak), Santiago eguna eta Andre Maria Zuriaren festak ahaztu gabe, non penintsularen iparraldeko jai-giro onenetako bat bitzitu ahalko duzun.



**Ondare historikoa.** Gasteizko Erdigune Historikoa monumentu-multzo izendatu zuten 1997an; bere horretan kontserbatzen du Erdi Aroko trazadura,

eta bisitaria antzinako garaietara eramaten duten txokoak ezkutatzeko. **Santa Maria katedralaren** edo Katedral Zaharraren (XIII. mendea) eta **Erdi Aroko harresiaren** (XI. mendea) kasua da hori; biak ala biak nahitaez ikusi behar direnak. Hala ere, ezin ditzakegu ahaztu bere elizak eta Goiuri, Montehermoso eta Eskoriatza-Eskibel jauregi errenazentistak.




Santa Maria Katedrala

Olagibelen **Arkupeak** (XVIII. mendea) Erdi Aroko Arbendolaren eta Zabalgunen neoklasikoaren arteko malda libratzen du. **Andre Maria Zuriaren plazatik** eta **Espania plazatik**, merkataritza-giro handia duten oinezko-kaleetara irits zaitzke.

**Natura.** Gasteiz 115.000tik gora zuhaitz ditu hiriguneko kale eta parkeetan sakabanatuta. Eratzun Berdean daudenez gain. Parkeen artean, nabarmentzekoa da erdigunean bertan **Florida Parkea**, XIX. mende hasierakoa. **Eratzun Berdean**, bestalde, oinezko-ibilbideen eta bizikleta-ibilbideen sare zabala dago eta, parkeen artean **Salburuko hezeguneak** aipamen berezia merezi du. Bertan, hegaztiak, oreina eta desagertzeko arrisku larrian dagoen bisoi europarra beha daitzke. Hantxe dago **Ataria**, natura ezagutzeko zentroa.



Ataria




Andre Mari Zuriaren Jaiak

**Enogastronomia.** Gastronomia Hiriburu Nazionala izan zen 2014an; izan ere, plater tradizionalenak eta euskal sukaldaritzaren sorkuntza berri-tzaileenak dasta daitezke Gasteizen, bai jate-txeetan, bai pintxoaren tabernetan, poltsiko guztietarako eskaintza zabalarekin. Hori guztia Arabako Errioxako ardoekin eta Arabako txakolinarekin batera. Eta, postrerako, hiriko gozogintza-tradizio apartak ematen dizkigun sorkuntza gozo askotarikoak. **Ardoaraba** azoka enogastronomikoari, **Pintxoaren Aste Nagusiari** eta **pintxo-poteari** esker, kalean bertan goza daitezke zapore onenez.



Pintxoak

**Museoak.** Arte garaikideko bilduma itzelarekin, aldi baterako erakusketa interesgarriak eskaintzen dizkigu **Artium museo-zentroak**. **Arte Ederren** museo eta **BIBAT** museo ere badauzkagu. Azken horretan, **Arkeologia museo** eta **Fournier Karta museo** biltzen dira, munduko karta-bilduma onenarekin. Maria Sortzez Garbiaren katedralak edo Katedral Berriak **Arte Sakratuaren museo** dauka. Halere, ezin ditzakegu museo bitxiak ahaztu, Arma museo edo **Farolen** museo, adibidez, beregeneroan bakarra izaki azken hori.



Artium

## Arabako ERRIOXA

Gasteiztik hegoaldera, kilometro gutxira, mahastiz ereindako paisaiak goza dezakezu, bai eta bertako ardoak dastatu ere, upeltegi tradizionaletan zein Calatravak, Cheryk edo Mézieren diseinatutako eraikin abangoardistetan. Iparraldera kilometro gutxi batzuk eginez, **Aiarako baitararen** paisaia ederra aurki dezakezu; Arabako txakolinaren sortlekua.

## Toki SINESTEZINAK

Añanako Gatzagak behatzea ahalbidetzen dizu **Gatz Haranak**. 6.500 urtetik gora dituzte aipatu gatzagek, eta, oraindik ere, **Añanako gatz** ekoizten dute, chef ospetsuenek erabiltzen dutena. **Arabako lautadan**, toki hauek bisitatu daitezke: **Estibalzko Andre Mariaren** basilika erromanikoa, **Aguraingo** hiribildua, **Gazeo** eta **Alaizako** margoak eta **Egilazeko** trikuharria.

## IBILBIDE ETA BISITA GIDATUAK

Ibilbide eta bisita gidatuen eskaintza handia dago, eta, horiekin, ikuspuntu guztietatik ezagutu ahalko duzu hiria.

Erdi Aroko Erdigunea ezagutzeko bisitak; maitasun- istorioen haria, literatur-lanen eszenatokiak edo legendetako pertsonaiak jarraituz, hiria ezagutzeko bisitak; Santa Isabel hilerria edo Horma-irudien ibilbide bitxia ezagutzeko bisita gidatuak. Baita, korrika egin edo bizikletaz ibili bitartean, hiria zeharkatzeko proposamenak ere.

## ENOGASTRONOMIA

Hornidura-azoka bisitatzeaz gain, ezin ditzakegu ibilbide gastronomikoak eta gidatutako dastaketak ahaztu; izan ere, Gasteizko produktu onenez eta giro bikainenez gozatu ahalko dugu horietan.

Non jan, atsedean hartuz kafe bat non hartu, oroigarri polit bat non erosi edo gaueko giroaz non gozatu jakin nahi baduzu, eskatu IZARREN GIDA turismo-bulegoan. Gasteiz On Merkatarien Elkartearen ekimena da aipatu gida.

## MUSEOAK ETA KULTUR-ZENTROAK

ARTIUM Arte Garaikidearen Euskal zentro-museoa / BIBAT Arkeologia museoa eta Fournier Karta museoa / Arte Ederren museoa / Natura Zientzien museoa / Arma museoa / Arte Sakratuaren museoa / Farolen museoa / Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa / Montehermoso Kulturunea / ATARIA Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa.

## BALIABIDEEN GIDA

Larrialdiak, Ertzaintza.112

Pediatriako larrialdiak: 945 00 70 00

Radiotaxi. 945 27 35 00

Radio-taxi Celedón 945 27 20 00

Udaleko ibilgailu-gordailua. Agirrelanda 8.  
945 161 100 / 945 158 000

Renfe. 912 320 320

Aireportua. 945 163 500 / 902 404 704

Autobus-geltokia. 945 161 666



**VITORIA  
GASTEIZ**  
turismo  
& convention bureau



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



**Europako Hiriburu Berdea 2012.**  
Vitoria-Gasteizek 2016tik dauka **Biosphere Responsible Tourism** ziurtagiria, helmuga turistiko jasangarria dela egiaztatzen duena.

INFORMAZIO GUZTIA HEMEN

**Turismo-bulegoa, Espainia plaza 1**

945 16 15 98 / 945 161 599

turismo@vitoria-gasteiz.org

Irekitzeko orduetgia: Al-Lr 09:30etatik 18:30etara

Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara

[www.vitoria-gasteiz.org/turismoa](http://www.vitoria-gasteiz.org/turismoa)



turismo\_vitoria



turismovitoria